

OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA

Ostadar SKTri buruz askok ez dakitena

Ostadar SKT aurtengo denboraldia 36. du. Gabi Valin eta Mikel Eskisabelek 1983. urtean I. Aretu-Futbol Txapelketa Herrikoiarekin hasi zirenetik asko aldatu da gure "txokoa", bai kirol atalei dagokionez, bai kirolari kopuruari dagokionez, baita elkarteak izan dituen egoitzei dagokionez ere. Garai hartan ez genuen udal-autonomiarik, pittin bat beranduago iritsi zen. Harreman instituzionalak ez dira batera errazak izan, baina elkarteak herritarren laguntzari esker beti aurrera egiteko bide bat aurkitu du. Aldaketak aldaketa, hogei eta hamasei urteetan elkarteak ez dio kirola sustatzeari utzi. Gaurkoan, elkartearen bizitzako bitxikeria batzuk jaso nahi izan ditugu.



Egoitzaz-egoitza

36 temporadas desde aquel año 1983 en que a dos jóvenes: Gabi Valin y Mikel Eskisabel se les ocurrió organizar el I Torneo Local de Fútbol. Desde entonces, una evolución permanente, sin retrocesos, pero salvando infinidad de obstáculos. ¡No ha sido un camino de rosas, precisamente, toda esta transición de un torneo de fútbol local a controlar tantas disciplinas deportivas como hoy abarca OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA.

Herrian bada leku bat elkarte askoren egoitza, bulego eta topalekua izan dena, Ilargi taberna. Bertan ibiltzen zen gazte talde batek areto-futbol txapelketa herrikoia antolatzea otu zitzaion, kirola medio auzoetako gazteak elkar ezagutzeko. Eta horrela hasi zen elkarteak bere lehen urratsak ematen. Ostadarrek soilik ez, AEK euskalategia eta Okendo Zinema Taldeak elkartzeko eta lana egiteko lokal baten beharra sentitzen zuten eta "Eskola Berriak" bezala ezagutzen zen eraikina hutsa zegoenez eta erabiltzen ez zenez, atea bota, garbiketa egin eta egokitu ondoren, Eskola Berrien eraikina bizi-berritzen hasi ziren. Eskola Berrietatik gaur egun Txema Vallesek Diario Vascorako duen bulegora pasa ginen. Urte batzuk egin ondoren, Geltoki Kalea 2ra, Okendo aldera aterata ginen eta azkenik, duela hamar bat urte, Michelingo kirol instalazioetara gerturatu ginen, egungo egoitzara.

Nueve disciplinas abanderadas por OSTADAR, configuran a más de 800 deportistas, de ambos sexos y edades diversas. Todo ello coordinado por personas para quienes el voluntariado es una razón de ser. Afición, compromiso y experiencia acumulada, es patrimonial de OSTADAR

Ba al zenekien...

Ba al zenekien Ostadarreko "azeria" Lasarte-Oriako armarran agertzen den azeriarengatik dela? Eta Ostadarreko kamixeten kolorea beltza-urdina dela fundatzaileetako batek Milaneko Inter gustuko zuelako? Eta hamazazpi urtez jarraian antolatu genuen pala txapelketako egurrezko ikurra Alejandro Romok egin zuela? Eta Ostadarreko nesken futbol taldea lehen aldiz 1991/92 denboraldian inskribatu genuela federazioan? Eta boleiboleko nesken taldea 1993tik 1999 izan genuela eta ataleko arduraduna David Heras "Handia" pelikulako efektu bereziengatik Goya sariaren irabazlea izan zela? Eta Ostadarrek pezeta baten truke "Intsumisioa" patrozinatzaile izan zuela? Eta kirol arropa zaharra GKEen bitartez beste herrietara bidaltzen dugula? Eta Lasarte-Oria Bai! Krosak Behobia-San Sebastianeko aurkezpeneko mahaian gonbidatu bezala egoten zela? Eta Lasarte-Oriako Udalak Eroski S.Coop.-erekin hitzarmen bat sinatu zuenean Urbil merkataritza gunea eraikitzeko Ostadar SKT-k ATERPEArekin batera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu zuela, herriko merkataritza babestu aldera? Eta honen harira, Ostadarrek Lasarte-Oria Bai! ekimena martxan jarri zuela herriko merkataritza sustatzeko? Eta gure bazkideek elkarteko txartelarekin herriko 80 komertzioetan deskontua zutela? Eta gure bazkide batek soldaduskatik libratu zela, beste arrazoiaren artean Ostadarren lan soziala egiten zuelako? Eta iaz Anoetan jokatu zen lehen nesken derbian gure infantil nesken taldeko jokalaririk bat Ostadar ordezkari bezala joan zela argazkirako?

Eta ba al zenekien, egun, elkarteak bederatziki kirol atal dituela eta urtean zehar 800 kirolari –krosaz gain- baino gehiago mugitzen dituela? Eta gure kirolariek Gipuzkoan denbora gutxien eta leku gutxiagoan entrenatzen dutenak direla instalazioetan denentzat lekurik ez dagoelako? Eta aurten lehen aldiz herriko talde batek urte osoa herritik at entrenatzen ari dela?

Urteak joan, urteak etorri, oztopoak oztopo... Ba al zenekien kirolaren alde lanean jarraitzeko asmoa dugula?.

Entre las personas que desempeñan algún tipo de responsabilidad organizativa, técnica o colaboracionista, sienten la necesidad de un relevo generacional que sin embargo no parece producirse. El voluntariado en las personas tiene fecha de caducidad, y OSTADAR no es la excepción

